

MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN (AHEK) 2017KO MARTXOA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %4,4 gehitu ziren 2017ko martxoan

2017ko lehen hiru hiletan %2,6ko hazkundera

Eustaten arabera, lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2017ko martxoan %4,4ko urte arteko gehikuntza izan zuten Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentek, prezio finkoetan. Aurreko hilaren, 2017ko otsailaren aldean, salmentak %0,7 gehitu ziren urtaro eraginik gabe.

Indize berri honen helburua da txikizkako merkataritzaren –azalera handien eta elikadura kate handien- hileko salmenten eta langile okupatuen koiunturako adierazlea izatea.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Elikagaien salmentek %5,3ko gehikuntza, eta gainerako salgaienak %2,5ekoa.

Gehikuntzak hiru lurraldeetan: Araban %3,5; Bizkaian %4,0; Gipuzkoan %5,5.

2017ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %2,6 gehitu, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, lan-egutegiko termino homogeneousetan, prezio finkoetan. Hil horietan, elikagaien salmentetan %+3,5; gainerakoenetan %+0,9.

Arabian, urteko lehen hiruhileko salmentak %1,3 gehitu prezio finkoetan eta aurreko urteko aldi beraren aldean; Gipuzkoan %2,4; Bizkaian %3,0.

Azalera handietako eta elikadura kate handietako langile kopurua %0,4 gehitu zen 2017ko martxoan otsailaren aldean, urtaro-eraginik gabe.

1. taula. Euskal AEko merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	4,4	0,7	2,6
Araba/Álava	3,5	1,2	1,3
Bizkaia	4,0	0,5	3,0
Gipuzkoa	5,5	0,9	2,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	5,3	0,9	3,5
Beste produktuak	2,5	0,4	0,9
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	3,3	0,4	3,6

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hilerarte arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Ohar metodologikoa: Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizeak azalera handietako merkataritzaren indizea ordeztzen du; hau egiteari 2016ko urrian utzi zitzaion, merkataritza koiunturaren hileko eboluzioa ez zuelako jasotzen, helburu horrekin sortua zelarik 90eko hamarraldian. Indize berrian, besteren artean erreferentzia-markoa berrikusi eta zabaldu egin da. Martxoko datuekin batera 2015eko urtariletiko serieak daude eskuragarri; urte hori da oinarri indizeak kalkulatzeko.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK) gaineko datu-bankua